

HARREMANAK

Gure zerbitzua ezagutarazteko kaleetan eta sare sozialetan publizitatea egingo dugu bezeroak lortzeko. Horrez gain, ditugun bezeroen interesa mantentzeko **erabiltzeko erraza** den APP bat diseinatuko dugu, oso familiarra eta bisuala izango dena, eta **astero berrikuntzak** izango dituen. Aplikazioa instalatzean, **tutorial** moduko bat eskainiko dugu, bezeroa orientatzeko, jarraitu behar dituen urratsak erakutsiz eta **esperientzia errazagoa** eta **bisualagoa** bihurtuz. Horri esker, lehenengo momentutik erabilera erraza izango da. Horrela, ditugun bezeroak gurekin jarraitzeaz gain bezero berriak ere errazago erakarriko ditugu aldiro eguneratutako aplikazio bat izango baitute. Honekin lotuta, arreta zerbitzuko atal bat izango dugu gure bezeroen feedback-a jaso ahal izana.

Pizgarriak izango ditugu bezero berriak lortzeko eta aurrekoak mantentzeko. Lehenik eta behin, gure APPan erabiltzaile gisa urteurren bat betetzen duzun bakoitzean izar bat jarriko zaizu zure profilean, eta, gainera, hilabetez, erosketa edo alokairu bat egiten duzun bakoitzean komisioren ehunekoa kenduko zaizu. Era berean, gure bezeroek egiten dituzten 10 erosketengatik 7 euroko deskontua izango dute, eta egiten dituzten 10 alokairuengatik 5 eurokoa.

